

Plaza > Kultura

Lazarragari buruzko jardunaldiak Artiumen → Lazarraga eta gizartea

Topiko zaharren birrintzailea

Aurretik ere gezurtatuta zeuden topiko batzuk lurrera bota ditu Lazarragaren eskuizkribuak, Pruden Gartziaren iritziz

Topikoa hausten duten ezaugarrien artean arabartasuna eta elizgizon ez izatea daude

Juan Luis Zabala

Joan Perez Lazarragakoren eskuizkribuaren aurkikundeak eta Joan Perez Lazarragakoren figurak berak «topiko batzuk lurrera botatzeko» balio izan dute, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendari eta Lazarraga, *Ernazimentua euskaraz* (Pamiela, 2005) liburuaren egi- learen ustez. «Topiko horiek bes-

tela ere gezurtatuta zeuden, Euskal Herriko gizarteak azken 30 edo 40 urteetan izan dituen aldaketengatik, baina Lazarragaren agerpenak arazo batzuk mahai gainean jarri ditu berriro». Gasteizko Artium museoan hitzaldia eman zuen atzo Gartziak, *Geu* aldizkariak eta elkarteak Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz antolatuta Lazarragari buruz egiten ari diren jardunaldietan.

Arabari buruzko hainbat topiko oinarri gabekoak direla berretsi du, adibidez, Lazarragaren testuen aurkikuntzak, Gartziaren ustez. «Batzuek esaten dutena entzunda, badirudi euskara abertzaleok asmatu genuela atzo goizean. Horrelako topikoek funtzionatzen dute oraindik gure gizartean. Ematen du euskara arabarrentzat gauza anekdotikoa dela. Lazarragak argudio berriak ekarri ditu topiko horren kontra».

Euskara herri xehearekin lotzen eta eliteetatik bereizten duen topikoa «gure historiaren ikuspegi faltsu baten ondorio» dela ere berretsi du Lazarragak, Gartziak dioenez. «Egia da euskarak minorizazio prozesu historiko bat jaso duela, bazterketa historiko oso gogorra, eta une jakin batzuetan

errepresio politiko zuzena. Baina euskara euskaldun guztien eta euskal gizarte osoaren hizkuntza izan da urte askoan».

Lazarraga ez apez eta ez fraile izatea ere aintzat hartu beharrekotua da. «Urte askoan elizgizonak izan dira euskararen inguruan lan gehien egiten dutenak, baina hori arrazoi historiko konkretu batzuegatik gertatu zen, ez da betidanik emanda dauka-gun datu bat».

Elite baten literatura

Lazarragak, gainera, «literatura hutsa» idatzi zuen, «oso bere garaikoa gainera». Elite batek landutako literaturaren parte zen Lazarragarena.

Euskaraz eta gaztelaniaz, bietan idatzi zuen Lazarragak, baina

hizkuntza bi horien erabileran Manuel Larramendiz geroztik zabaldu den banaketaren topikoa hausten du Lazarragaren literaturaren ezagutzak. «Larramendik gauza garrantzitsuez gaztelaniaz idatzen zuen, eta herri xehearentzako gauzak euskaraz. Ez zen hori Larramendi baino lehenagoko idazleen joera. Lazarragak jende ikasiarentzako literatura idatzi zuen euskaraz, eta erdaraz kronika historikoa batez ere. Zer klabe dago banaketa horretan? Oraindik ez dakigu, baina argi dago ez dela Larramendiz geroztik egin izan den banaketa».

«Izenarekin» lotuta dago Lazarragak gezurtatu duen beste topiko bat. «Arabar deitura tipikoak bete-betean euskal deiturak dira», Gartziaren iritziz. «Nafarro-



Kike Fernandez de Pinedo, Joseba Intxausti, Xabi Otsoa de Alda eta Pruden Gartzia, atzo, Artiumen. EDORTA SANZ / GEU GASTEIZ



Euskara euskaldun guztien eta euskal gizarte osoaren hizkuntza izan da luzaz»

PRUDEN GARTZIA
Euskaltzaindiaren Bibliotekako zuzendaria

an, Gipuzkoan, Bizkaian eta Gaztelan ere erabiltzen zen deitura sistema hori, eta Arabaren berezitasuna da sistema horrek iraun egin duela Aro Modernoan ere. Gaur egun euskaldun tipikotzat jotzen ditugun deitura asko Arabako horiek baino askoz berriagoak dira, XVI. mendeaz geroztik zabaldukoak».

↓ **Gaurko egitaraua**

LAZARRAGA ETA LITERATURA

18:30: Julen Arriolabengoa:

'Euskal kantu zaharrak eta beste Iburguen-Cachopin kronikan'

19:15: Iñaki Aldekoa:

'Ernarimentua Lazarragaren literaturan'

20:00: Galde-erantzunak.

20:30: Ortzai antzerki laborategiak aurkeztuta, 'Maitasunaren saltsan' (Lazarragaren artzain nobelaren adaptazioa).

21:00: Bertso trama: 'Zugan ereingo den ene hazia (Lazarraga asmatuz)'.

Tramalaria: Josu Goikoetxea.

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Maia.

Euskara zen nagusi Lazarragaren gizartean

XVI. eta XVII. mendeko Arabako hizkuntz errealitatea aztertu dute Fernandez de Pinedok eta Otsoa de Aldak

J.L.Z.

Lazarraga bizi izan zen gizartean euskara nagusi zela azaldu zuten atzo Artiumen egin zuten hitzaldian Kike Fernandez de Pinedo

(Gasteiz, 1961) eta Xabi Otsoa de Alda (Legazpi, 1962) irakasleek.

«Lazarraga bizi zen garaiko hainbat dokumentu erakusten dute garai hartan Ekialdeko lautadan eta mendialdeko Araia-Maeztu inguruan euskara nagusi zela, eta herrietako bizilagun gehienak euskaldun elebakarrak zirela», Fernandez de Pinedok azaldu duenez.

Adibidez, Arriola herrian —Larrearen ondoan— noblezia agiri bat egiteko lekukoen bila hasi zi-

renean, ez zuten erdaraz zekien inor topatu, eta interpreteak jarri behar izan zituzten. Gauza bera gertatu zen beste hainbat herri-tan ere.

1609an hasi eta 1614an amaitu zen prozesu inkisitorial bati dagozkion datuak aztertu dituzte Fernandez de Pinedok eta Otsoa de Aldak. Gorde diren dokumentu bakanen artean, 80 auzipetuen zerrenda dago. Horietatik 11 Arabakoak dira, eta denek euskaraz zekiten interpreteen beharra izan

zuten. Larreakoak ziren bi, Asparrrenakoak beste bi, eta gainerako zazpiak Araia-Maeztu ingurukoak.

«Dokumentazio horretan deskribatzen diren kasuak Gipuzkoako, Zugarramurdiko eta Nafarroaren iparraldeko beste lekuetako kasuen antzekoak dira», Fernandez de Pinedok azaldu duenez. «Uste baino eragin handiagoa izan zuten sorginen fenomenoen eta Inkisizioak Lazarragaren garaiko Araban».